

M - 4875

A - 1267

A.7.V.
1321

Loyala'tar Iñaki Deuna



A. 1. 132

STUDY MATERIAL

NORBAIT'ek (Ganguren'da' Kepa) idatzija

A.T.V.
1321

IÑAKI'REN JAYOTZA

Loyola'tar Iñaki Gipuzkoa'ko Azpeitia erijan jayozan 1491'gañen urtian.

Bere atea Oñaz eta Loyola'tar Beldaran (Beltrán) azpeñijaña ixan zan, eta amea Likona eta Balda'tar Mariñe azkoñijaña; jatoriz bijok etxe andiki ta aberatze-takuak.

Ama-aldeetiko Iñaki'ren aña Bizkaya'n, Ondañoa deretxan erijan, "Likona" jauregijan, jayua zan; beraz, Iñaki odolez bizkañaña be bai-dala egiz esan daikegu.

Beldaran eta Mariñe senar-emastiak amairu seme-alaba ixan ebezan; zoñtzi seme ta bost alaba, ta Iñaki zan gustijotatik gastiena.

IÑAKI GUDARI (MILITAR)

Umaroko urtiak gurasoen onduan eginda, moñes-kotu zanian, Iñaki gudari bidaldu eben España'ko

Reyes Católicos eretxoenen urira. Gure gaste onek, berezko bere gañasunak, zuñtasunak eta andikerijak eraginda, gudalburu (*kapitan*) ixatia laster loñtu eban. Eta begi-aññian agerkijon etoñkixun atsegingaññi ta onuratsubak buruba ludiko uskeriz beteten eutsan.

Onetan, Iñaki ogetamañ urteduna zala, Nabaña'n ixugaññizko guda (*geña*) gogoña soñtu zan. Batzuk *agarmondañak* ziran, eta zuzenbidezko euren bakalduna zan Albrit'en ixenan, Nabaña'ren azkatasun eta jaubetasuna aldezten eben, pantzetañak laguntzen eutsielarik. Bestiak *biamondañak*, Nabaña memberatu gura eban España'ko bakaldunaren lagunak.

Iñaki, beste euzkotañ asko lez, Nabaña'ko anai zintzoen aña (*kontra*) jaññi ta Iruña'ra etoññi zan, urññi au jaboteko.


Agarmondañak 1521'kaññen urtian Iruña inguratu ta baññukoññen aña su-ta-gaññ gudaka asi ziran, urññija atzeññiññen menbetik azkatzeko.

Gudaketa onetan Iñaki'ri berunbil (*bala*) batek eskumako ankea apuññtu eutsan eta zaurija osatzeko Loyola'ko bere etxera eruan eben.

Ezpiaññ onek, gure gixonaren amets gustijak ezer-eztu euzan. ¡Baña, zorijoneko zaurija, Iñaki ludiñaññ beratu ebana, gero donokiññañ jagiññeko zan-eta!

IÑAKI'REN BIJUÑKUNDIA

Loyola'n osakuntzea egiten eguan biññaññian, aspeññtu ez egññeko, aldi atan oi-ziran ganorabako idazti batzuk oera eruateko eskatu eban.



L. MOICO.

Idaztijok, baña, etxian ezeukezala-ta, beste bi emon eutsoezan: “Kisto’reñ bixitza” zan bata; “Flos Sanctorum” bestia, Deunen bixitzak eukazana.

Lenengotan, ardura andi-barik irakuftzan idaztijok, baña gero gogo onez ta zintzoro Kisto ta Deunen egikunak ausnañtubaz, ta Jaungoikua’reñ eskañak igñtuta, ludiko uskeri gustijak bertan-bera itxi ta Kisto’gana oso-osuan bijuñtzia erabagi eban.

Asmo au beteteko, gau baten oetik jagi, Miren Neskutza’reñ irudi-aññian belaunbikotu ta lengo uskeri gustijai betiko agur’egñia ta Jaungoikua’reñ otseintzan bixitza igarotia eskiñi euzan. Une atan etxe osuak dardaraka ikara-egin ei-eban, eta orña baten orain agiri ñiran añakalak ordubantxe egñnak ei-dira. Urngo beste gau baten, otoi-egijala, Miren Neskutza, Umia besuetan ebalarik, agertu yakon; ezeutsoen itzik be egin: bai, baña, bere gogua asko poztu, beragandik lixunkerirako igikun gustijak kenduki.

IÑAKI'REÑ BATERA-BESTERAÑO IBILGETAK

Piska bat osatu zanian, gudaritzea, sendi ta dana itxiña, erdi-eñenka Catalunya’ko Monserrat’en dan txadonera juan zan, antxe nekezko bixitza bañija asteko.

Bidian mauriñar bat aurkiñu eban eta alkañekin Miren Neskutza’reñ garbiñasunatzaz izketan iñardubela, mauriñar onek, Josu-Kisto jayota gero, beronen Amea neskutz etzala geldiñu esan eutson. Uste oker au zinge (*infiel*) aren burutik aterateko Iñaki’k alegiñak egin euzan; alpeñik, baña, mauriñarak jaramoteka ñges-egin eutson-eta. Asañetu zan Iñaki ta gixon a ilgo

ete-eban gogoratu yakon. Zer egin ezekijala, auñez-auñe bide-kurtze bat ikusi eban, eta bere zaldija azke juaten itxiña, mauriñaren bidez ba-uan, ilteko erabagija aritu eban; ez, baña, beste bidez juatekotan, Jaungoikua'k zaldija mauriñaren bidez-barik, Iñaki'rentzat egokijagua zanaren bestez eruan eban.

Monserrat'era eldu zanian, lenengo-lenengo biraña bixitz osoko autoñkuntza (*konpesiño*) ona egitia ixan zan. Gero zaldija lekaidetxiari emon, ezpata ta sastakaya Ama Neskutza'ren ondijan (*altaran*) eskegi, bere soñekuak eskeko bateri turkau ta gau osua Neskutz deun-deunaren auñian otoi-egiten igaro eban; 1522'gañeneko epañaren 24'gañena zan.

Urango egunan, Manresa'ra juan zan, bertoko gexotegijan luzarotxu bixi-ixateko. Emen egon zan aldijan ziltzaldi asko garañu ebazan eta Jaungoikua'k saritzat berarizko eskañ asko emon eutsozan: Domeka deunaren txadonan Irukoitz Deuna'ren irudija aufkeztu yakon zoragañizko gauzak irakutsiki; Cardoner ibaiko urari begira eguan bein, uretan donoki-irudija zabaldu yakon ikuskañizko gauzakin; beste baten gexotegijan bertan konorte-barik astebete egin eban, donokijan ba'legon lez.

Manresa'tik ur' eguan leza batera sañitan juaten zan otoi-egiten. Leza onetan idatzi eban "Gogo-Iñarkunak" deretxan bere Jaztiño edeña, idazti añañija, oindiño ostaz-ostaz irakurten eta idazten ekijala idatzi eban-eta.

Manresa'n urtebete egin ebanian, Hierosolym'era (Jerusalen'era) bidezkundia egitia gogoratu yakon. Eta

urten zan 1523'gañen urtian Barcelona'runtz, an Itali'rako itxasontzija artzeko. Itali osua ipar-aldetik ego-alderaño, aterik-ate janarija zuzenduta, oñez igarota Venecia'n Hierosolym'erako ontzija artu eban. Bertora eldu zanian, an ibili zan pozik-be-pozik *toki deunak* ikeritzen (*bixitetan*). Emen be, baña, Jaungoikua'ri eskintzeko nekerik ugari ixan eban.

Bein, Olibete mendija bañero ikusi-gureaz, lagunak itxi ta ara igon zan bakañ-bakañik. Turkañen eskubetan bixija galtzeko zorijan zala-ta, bere bila lekaide pantzeskañak moñoi bat bidaldu eben. Moñoi onek Iñaki eskuko makilagaz jo ta tatañaz erabili eban, beronek itzik be esan-barik. Eta lekaidiok be andik iges-egiteko agindu eutsoen.

Onantzian, gauza arigañija jazo yakon Iñaki'ri. Itali'ratzeko iru itxasontzi egozan: turkañena bata, eder-edeña; beneziñar batena bigañena; iruguñena erdi-zulaturiko txatxañ bat. Beneziñar ezeban Iñaki ekañi gura-ixan-eta, ontzi txatxañaren ugazabeak artu eban Jaungoikua'ñen. Iru ontzijok urten ziran ba, ta laster ekaitz gogoñak zibukatu euzan. Turkañena lagun eta gusti ziatz galdu zan; beneziñañena Chipre'ko atxetan apurtu zan, lagunak iño-barik; Iñaki etoñana bañiz eder-to-eder-to eldu zan Venecia'ra.

Iñaki Venecia'tik Genova'ra juan zan, an Barcelona'rako ontzija artzeko, eta Genova'n gudari batzuk astiñaldi andija emon eutsoen.

Barcelona'ra 1524'gañen urtian eldu zan.

IÑAKI, IKASLE

Loyola'tik urten zala urte bi ziran. Orain-arte bere

BIZKAI'KO AUÑEZKI-KUTXEA

Bizkai'ko Aldundijak (Diputaziñuak) irasita ta beronen babesa daukana.

1928'gko. Lotazila (Abendu) 'ko 31'garerarte bertan imiñitako dirutzea:

86.090.574,07 LAURLEKO

Urteko onenbeste emoten dautse:

Libreta orokari	euneko	3'75
Umien dirubai	"	4'50
Sei ilabetekuai	"	4'00
Urtebetekuai	"	4'25
Urte bikuai	"	4'50

BILBAO'KO IDAZTOLAK:


Estación, 5 (Plaza Circular-ertzian).

Aldundijaren jauregijan.

Plaza de los Auxiliares (Sombrereria-ertzian).

37 ordezkari daukaz Bizkaya'n

EUZKO-BASETXIARI LAGUNDU



Bizkaï'ko Aldundijak eta Bizkaï'ko Aurrezki-Kutxeak aspaldijon diñardube gure basetxien alde. Eta atsegiñez ikusi dabe onura andija etorriko litzakijola gure erriari, oraingo maisterak etxe-jaube egitia lortuko ba'litz, bala basetxe barijak be egingo ba'genduz.

Ona emen onetarako emeten dogun laguntasuna.

Basetxe barijak egiteko: basetxiok balijo daben eur peseta bakotxetik ogei, ta oretarako emongo yaken dirubaren euneko bat. Diru au ixango da, geyenez, basetxiaren saneurijaren eunetik 70.

Maisterak basetxiak erosi gura ba-dabe, ordainduko yake, 20 urtetan, eun laurleko bakotxetik 3750 geyenez, Bizkaï'ko Aurrezki-Kutxak oretarako emondako diruba kitau al-ixateko.

BIZKAI'KO AURREZKI-KUTXEAK

Estación, 5.-Bilbao'n.

Bizkaitarra: Zeugaz bixiten zortzi seme-
alaba edo geyago ba-daukazuz, zuzendu zai-
tez Bizkai'ko Auñezki-Kutxa'ra. Onek
artuko dau ardurea, ume askodun sendi
edo pamilijentzat aginduta dagon diruba
jaso ta zeuri emoteko.

Atzerira jua gura ba-dozu ondo oldoztu
edo pentsau lenengo, ta juatia erabagiñen
ba-dozu Bizkai'ko Auñezki-Kutxa'ra jo
egixu. Onek zainduko zaitu ta zer egin
biariko dozun ziatz erakutsiko dautzu.

España'tik kanpua neba-arebarik, seme-
alabarik edo aña-amarik ba-daukazu, ta
nun dagon ezpa-dakixu, esan egijozuz
euren zertzeladak Bizkai'ko Auñezki-Ku-
txa'ri ta au aleginduko da zure senidiok
idoroten (topetan),

Gauza gusti onek dubarik egiñen dauz Biz-
kai'ko Auñezki-Kutxeak.

gogo-aldez jardun eban; auferantzian, baña, bestien gogo-aldez ekiteko asmua artu eban. Onetarako, Doibatz-jakidija ta Doibatz-baimena bialak euzan; bata ta bestia loitzeko ikasle egin zan. Eta 33 urteduna zala, laterea (*latin*) ikasten Barcelona'n asi zan, ume koskorak ikaskide euzalarik.

Emen urte bi eginda, Alcalá'ko Ikastetxe Nagosira jo eban, Baña, Alcalá'n kista'ikastija irakasten itxi ezeutsoelako, 1527'gañen urtian Salamanca'ra egin eban.

Salamanca'n, alan-olango gixonen bat zalakuan, espetxera (*kartzelara*) sartu eben. Estuntzaz (*katez*) loturik bere buruba ikustiaz tamalik ete-eban ifandu eutsan bati, onantxe erantzun eutsan: “¿Gixona espetxian eta ostikopetuta egotia ain gaitz anditzat daukazu? Salamanca'n diran estuntza gustijak baño ge-yago, Josu-Kisto neure Jauna'gañik, aldian pozik eruan-go neukezala bene-benetan diñotzut, ba”.

Salamanca'n baño Paris'en bere ikaskixunak obeto egingo euzala-ta, 1528'gañen urtian uri nagosi onetara juañ zan.

Paris'en be geidiari (*projimuari*) on-egiten alegintzen zan. Ona emen, bein egin ebana. Gixon bat, ober-egiteko, Paris-albora urteten zala ekijan Inaki'k. Bizkera deunge a izteko saritan esan oi-eutsan; alpeñik, baña. Gau baten, gixon au bere oben-tokira ibai-ertzetik juañ bial-zala jakinda, Inaki uretan leporaño sartu zan. Neguba zan eta otza itzala. Esandako gixon a albotik igarotian, Inaki dida'ka asi yakon: “¿Nora ua, gixaxo erukañi ori? ¿Ala ezaz Jaungoikua'ren bil-

dur? ¿Ez tok eu irunzteko gaiztokija (*inpernuba*) zabalik ikusten? ¡Ua ua! Neu egongo nok emen Jauna'ri ire aldez etoi-egiten!". Gixon a, ekusanaz aritu ta gelduta, bide txara itxi ta Inaki'ren lagun egin zan.

Eta onantxe ekiten eutsan bere lagunak Jaungoikua'ganatzen.

Manresa'n lez etzan Inaki bakarik aurkitzen 1534' garen urtian, bere Jaungoiko-matasuna ta zaletasuna beste batzui be erautsi eutsan-eta. Onein artian, lenengokuak Fabro'tar Kepa, saboya'ra, ta Jabier'tar Pantzeska, napa'tar euzkelduna, ixan ziran.

Iruña'ko gudaketan Inaki zauritu zanian, Pantzeska onen aia Inaki'ren aurka ta Naba'ra'ren aldez gudarari ixan ei-zan.

Jabier ta Fabro'ren urengo beste lauk be jaratu eutsoen Inaki'ri: Lainez de Almazan'dar Jagoba'k, Salmeron'dar Albontsa'k, Bobadilla'tar Nikola'k, iruruk espana'rak, eta Rodriguez'tar Simon portugaldar'ak.

Saspi lagunok bazkun bat egin eben eta berau iraunkora ixan zetiantzat euren burubak Jaungoikua'ri betiko eskiñi eutsoezan Montmartre'ko txadonan. Ona emen Josu-Lagundija'ren so'kundia.

IÑAKI, JAUPARI TA BELGUNDARI (ABADE TA

MISIONERU)

Paris'en 1535'ka'ren urtera'te ixan zan Inaki. Ikasketek ama'u euzanian, bere osasuna makal-sa-



maña zan; augatik, Azpeitia'ra etoñi zan, osatuteko asmoz.

Bere erijan iru ilabete eginda, España'z-ziañ ibili zan 1536'gañenerañte. Gero Itali'ra jo eban. Andik laster Paris'en itxi euzan lagunak be, ikasketek amañuta, berarekin batu ziran Itali'n.

Iñaki 1537'gañen urtian Venecia'n jaupari egin zan. Lenengo jaupea egiteko, urtebete baño geyago gertatzen egin eban.

Bera ta bere lagunak, danak jaupari eginda, Roma'ra juatia erabagi eben, euren bizkera bañija Doipuruba'ren menbian ebasteko. Bidez juazalarik, Iñaki'ri Jaungoikua agertu ta mañekiro esan eutsan: "Roma'n neuk lagunduko dautzobet".

Orduban Doipuru (*Aña Santu*) zan III Paul'ak ondo baño obeto añtu euzan, euron ondasun eta jakintzeari egokijon lez. Urtziztija irakasteko biañkuna ezañi eutsen eta Iñaki'ri, ganera, gixonakan Jaungoikua'ganako mañasun-suba ixifuteko ardurea.

Andik lasterñtxu, Iñaki ta lagunen deundasuna entzute andikua egin zan-eta, Portugal'go bakaldunak Iñaki'ri beronen sei lagun Indijeta'ra bidaltzeko eskatu eutsozan, "Gustiz amañ baño ezkara —erantzun eutson Iñaki'k—. Indijeta'ra sei juanezkero, ¿beste tokijetarako zenbat ixango gara?. Eta Doipuruba'ren eretxiz ta aginduz, bi bidaldu euzan: Jabier'tañ Pantzeska euzkelduna ta Rodriguez'tañ Simon.

JOSU-LAGUNDIJA'REN ERALGUNTZA

Iñaki'ren jañatxaliak geruago ta ugarijago ziran.

Eta Doipurubak ara ta ona eurotariko batzuk zabaldu gura-euzalako alkañengandik aldendu-orduko, Doibatza-rauz Bazkuna eraltzia gogoratu yakon. Bazkun au “Josu’reñ Lagundija” ixenaz jayo zan eta III Paul’ak onetsi ta ontzat emon eban 1540’gañen urtian, eta bere nagositzat Iñaki autu eben aburu batez josulaun (*jesuita*) gustijak.

Bere azkeneko urango amabost urtietako arazua, irazan eban “Lagundija” zuzentzia ixan zan Iñaki’reñtzat: seme bañijai Lagundiko bizkerea irakatsi ta gero lagunak ludi osuaz-ziañ zabaldu, Josu-Kisto ta bere Doibatza’reñ aldez lan egijentzat.

IÑAKI’REN ERIJOTZA

Iñaki 1556’gañen urtian, irurogei ta bost euzala, gexotu egin zan eta erijotza laster etoñkijola igarñi eban. Autoñtu, jaunañtu ta Doipuruba’reñ oneskunaz bere gogua sendotu eban. Bagilaren 30’gañen eguna zan. Urango goxaldian, begijak donokirantz jaso ta Josu’ritzez ta bijotzez defurik, gentzatsu ta pozkiro il zan.

Ilda gero alatzik (*milagro*) asko egin ebalako ta bere ekanñdunak (*birtutiak*) eta deundasuna argiro agertu ziralako, XIII Gergori’k Deunen ixendegijan jañi eban 1609’gañen urtian. Bere jaya Garila’reñ 31’gn, ospatzen da.

IÑAKI DEUNA, GIPUZKOA TA BIZKAYA’REN

ZAINDARI


Gipuzkuanañak Iñaki Deuna euren Zaindaritzat 1620’

gañen urtian autu eben, Zumaya'n egindako Batzar Nagosijan.

Bizkañarak be berorixe egin eben Gernika'n 1680' gañenan.

Euzko-Eri osuaren Zaindaria oindiño eztañen, egizko euzkotar gustijak mañasun eta oneraspen (*deboziño*) andija dautsoe euzko-endeak sortu daun semerik aintzatsubena dan Deun oneri.

¡Beronek gaizkatuko al-gauz...!



Euzkeraz ta erderaz idatzita dagon

E U Z K E R E A

aldizkingiak zeure eskubetan daukozun eta atsegin edo-dozun idaztitxu au argifaldu dau.

Euzkeldunai gustiz atsegingari ixango yakezalakuan.

E U Z K E R E A

aldizkingiak txifian-pifian aonelako idaztitxubak argifalduteko asmua dau.

Beraz, euzkeldun ona ba-zara,

E U Z K E R E A

aldizkingijari lagundutia ontzat artuko dozu, ta beroni egin daiskiozun laguntzarik onena zeu arpidetutia da. Eta arpidetuta ba-zagoz, lagundu egixu zeure lagun eta aizkidien artian beste arpidedun barija egiñaz.

Arpidia: sei-ilabetian, lau laufleko

Len-bai-len bidaldu zeure ixena

E U Z K E R E A ' r i

Gran Vía-46'gn.

BILBAO'n.





2

M CMXXIX

Bilbao'n
Érementoriatá S.'ron
Irafkolean